

BIZIA JOKOAN DAGOENEAN

Europa berdeak eragiten dituen sakrifizio eremuetako urraketen ahotsak Bilbon

INGURUMENA / Nerea Goti

Munduko alde honetan krisi klimatikoaz hitz egiten dugun bitartean, planetaren beste muturrean enpresa transnationalek eragiten dituzten inpaktuen aurreko borroketan ohikoak dira mehatxuak, jazarpena eta eskubideen urraketa. Euren lurraldeak babesteagatik bizitza arriskuan jartzen duten horiek Bilbon hitz egin dute.

Sei urte bete dira Berta Caceres honduratarra enpresa baten interesen aurrean lurraldea (edo bizitza) defendatzeagatik tiroz hil zutenetik. Lenca herri indigenako buruzagi eta ingurumenaren aldeko ekintzaile feminista 2015. eta 2019. urteen artean eraildako 1.323 aktibistetako bat izan zen. DESA enpresako goi kargudun bat haren hilketaren arduradunetakotzat jo dute. Bilbon egin berri den “Bizitza jokoan” kongresuan haren oroimena hauspotu dute.

Pentsa daiteke milaka kilometrorra gertatutako heriotza horiek munduko alde pribilegiatu honekin zerikusirik ez dutela, beste testuinguru batzuetako errealitateen ondorio direla, baina sistema harrapariaren logika gaiztoak urrun kolpatzen du irabaziak hona ekartzeko, eta praktika ezaguna da. Hemen totem bat den trantsizio ekologikoaren diskurtsoak beste aurpegi batzuk erakusten ditu kanpoan, eta horren berri eman duten ahotsak entzun dira Bilbon, urrutikoen eta hemengoan ahotik.

Mugarik Gabe gobernuz kanpoko erakundeak antolatuta, krisi klimatikoaren eta giza eskubideen arteko harremanen sakondu dute topaketa ho-

riek, muinean dagoen auzia ondo deskribatzen duen izenburuaren pean. Gobernuz kanpoko erakundeak berak nabarmendu zuenez, krisi klimatikoaz eta ekintzara pasatzearen beharraz hainbeste hitz egiten den honetan, ekintzara pasatzea biziarekin ordaintzeraino hel daiteke. Horregatik, klima larrialdiaz hitz egiten den bakoitzean gogoan izan beharreko kanpoko inpaktuak mahaigaineratu eta lehen pertsonan bizitza defendatzeagatik bizia jokoan jartzen dutenei eman die ahotsa, esperientzia eta ikuspegi ezberdinetara hurbilduz: alderdi politikoenak eta erakundeenak, megaproiektuen makineria administratiboari aurre egiten dioten ekintzaileenak, eta enpresa handiei aurre egin eta lurraldea defendatzeagatik mehatxupean bizi direnenak.

BELTZA, FEMINISTA ETA AKTIBISTA

Itzul gaitezen Berta Caceresen Honduras maitera, eta mintza gaitezen bertan krisi klimatikoaren inguruan duten esperientziaz. Yessica Trinidad Hondurasko Defendatzaileen Sareko kidea da. Azaldu zuenez, beltza da –eta horrek berez badakartza ezberdintasunak–, eta feminista; eta beltza eta feminista izatea «ez da bati ere erraza etengabe emaku-

Yessica Trinidad, Hondurasko Giza Eskubideen Defendatzaileen Sare Nazionalako kidea, eta ondoan, Jackeline Romero wayu herri indigenako buruzagia, Mugarik Gabe GKEak Bilbon antolatutako «Bizitza jokoan» kongresuan.
Monika DEL VALLE | FOKU



meak hiltzen dituen herrialde batean», baina gaineratu zuen, horrez gain, «eskubideen defendatzailea izatea» bururatu zitzaiola, «eta hori oso arriskutsua da».

Defendatzaileen Sarea 2010ean jaio zen eta bere mandatua lurralde ezberdinetan giza eskubideak defendatzen bizirik atera diren emakumeak babestea da, erauzketa enpresei aurre egiten dietenak eta indarkeria matxistaren biktima direnak. Horietako asko nekazariak dira. Yessica Trinidad ez da nekazaria, baina nabarmendu zuenez, «lur jabeei aurre egiten dieten emakume nekazarien arriskuak» bizi ditu gertutik.



Milaka kilometrora dagoen errealitate horrek lotura argiak ditu Mendebaldeko ongizatearekin, bizimoduarekin, Trinidadek berak gogorarazi zuenez.

Kontatu zuen kontinente honetara bidaiatu duen bakoitzean pentsatu izan duela «zein polita den Europa, zenbat baso dauzkan, zer garbi daukan dena», baina zera erantsi zuen: «Hori gure herrialdeetan bizi dugunaren kontura da, zeren hemen ez dago Hondurasko erauzketa enpresarik, baina Hondurasen enpresa kanadarrak, estatubatuarak, europarrak... daude eta han bizi garenok enpresa horien indarkeriari egin behar

diogu aurre: xaxatzeari, etengabeko jazarpenari eta prestigioa kentzeko kanpainei. Horren adibide dugu Bertaren bizitza». Hilketak defendatzaileen bizitzarekin egiten duten azken gauza, baina «horren aurretik askoz indarkeria gehiago jasan behar dugu, eta horiei guztiei aurre egin behar izan zien Bertak».

Trinidaden esanetan, «nekegarria» da politikariei aurrerapausoak ematen ari direla entzutea eta sinistea politika publikoenganako eskatzen duten konfiantza horretan, «legeak egitearekin ez delako nahikoa». «Kontsumoarekin zerikusia duten eta ondo ez dauden gauzak aldatzen joan

behar dira; nola kontsumitzen dugun, errespetuz, pentsatuz mundua ez dela soilik aurrean duguna eta beste mundu batzuk ere badaudela, pentsatuz beste leku batzuetan Europaren kontsumoari aurre egiten diogun beste pertsona batzuk daudela», gaineratu zuen.

Yessica Trinidad giza eskubideak defendatu eta indarkeria matxistari nahiz erauzketa enpresen indarkeriari aurre egiten dieten emakumeak babesten dituen sareko kidea da

Bere ustez, legeak egitearekin ez da nahikoa, errespetuz kontsumitu behar da, Europaren kontsumo horren ondorioak beste herrialde batzuek ordaintzen dituztela kontuan hartuz

ENPRESEN BEHATOKIARI EZETZA

Hondurastarrak minutu batzuk lehenago euskal politikariek aipatutako gai bati heldu zion. Mikel Otero EH Bilduko legebiltzarkideak ohartarazi zuen enpresak nazioartekotzeko politikak ez duela giza eskubideen logikan eragiten. Horregatik, hemengo enpresak kanpoan zer egiten duten zaintzeko gizarte mugimenduek eskatzen duten enpresen eta giza eskubideen behatokia sortzeko proposamena egin dutela gogora ekarri zuen Oterok, baita alderdi batzuk horren aurka agertu direla ere. Elkarrekin Podemoseko Miren Gorrotxategiren ustez, tresna eraginkorra izan daiteke behatoki hori; Unai Grajales EAJko biltzarkidearen ustez, aldiz, indarrean dauden nazioartekotze planak badaude jada gizarte erantzukizuneko esparru berri batekin lerrokatuta: gauzak ez doaz nahi genukeen abiaduran baina kontzientzia berri bat dago eta enpresen artean gero eta barneratuago ikusten du kontzientzia hori. Oterok zera erantzun zuen, ordea, «barra libre dago nazioarteko kapital finantzarioarentzat» eta «ez dago argi abusuzko praktikei muga jar dakekeenik».

Gizarte erantzukizuna barneratuta ez duten enpresa asko dago munduan, eta horien aurreko esperientzia kontatu zuen Trinidadek. Esan zuenez, milaka eraso erregistratu dituzte azken urteetan, eta bistan da ez dituztela gertatzen diren guztiak jaso, ezin dutelako lurralde guztietan egon.

Itxaropen handiak piztu ditu Xiomara Castro Hondurasko lehen emakume presidenteari. Trinidadek aipatu zuenez, Gobernuak iragarri du ez dela aire zabaleko meatzari-

tza jarduera gehiagorik egongo. Albiste ona da, baina herrialdeak beste arazo handi bat daukala esan zuen ekintzaileak, batzuetan Hondurasen zaila delako «ezberdintzea droga trafikatzailen, politikarien eta enpresarien artean», eta arazoa funtzionarioenganaino heltzen delako.

Hondurasko Defendatzaileen Sareak bezala, emakume aurpegia du Kolonbiako La Guajirako Cerrejoneko aire zabaleko ikatz meategiaren aurkako wayu herriaren erresistentziak. «Enpresa transnazionalak bizitza suntsitzen ari dira gure lurraldeetan», esan zuen Jackeline Romero wayu herriko buruzagiak. Politikarien diskurtsoa hartu zuen hizpide Romerok ere: «Koherentzia politikoaz hitz egiten dutenean, esaten duguna entzun beharko lukete». Deskarbonizazioaz hitz egiten denean, burura etortzen zaio Cerrejoneko enpresak urtero ateratzen dituen 40 milioi tona inguru horiek. «Enpresa hauek erraztasun guztiekin heltzen dira eta arauen hauskortasunaz baliatzen dira».

GUTXI BATZUEI MESEDE EGITEKO

Enpresa horiek sortzen duten aberastasuna, gainera, ez da lurraldean geratzen. Oso zerga txikiak ordaintzen dituzte eta bistakoa da negozioak kal-

«Zer polita da Europa, zenbat baso... baina hau guztia guk gure lurraldeetan bizi dugunaren kontura da; hemen ez dago Hondurasko enpresarik, baina han europarrak bai»

Jackline Romerok nabarmendu zuenez, kontua da deskarbonizazioaz hitz egiten dietela, baina hango legedia «atzerriko kapitala erakarri eta dugun guztia eraman dezan diseinatu dute»



Berta Caceresen irudia, lehen planoan, eta Alejandro Palomo. M. DEL VALLE | FOKU

teak baino ez dituela ekartzen hango bizilagunentzat, eremu pobreen artean baitaude meatzaritza proiektuak hartzen dituzten lurrak. Azaldu zuenez, handik irteten den ikatz preziatua «odolez zikinduta» dago, eta logika zital baten ondorioz, gurean isurketak murrizten diren bitartean, han behartuta daude euren lurrak «sakrifizio eremu» deituriko horietako bat izatea onartzera. «Ezin da sakrifizio eremurik izan gutxi batzuei mesede egiteko», azpimarratu zuen.

Ikatx meategiarekin gutxi ez eta, lehenengo parke eolikoa inauguratu dute, eta 2030. urtera arteko proiektzioa halako beste askoz josita dagoela zehaztu zuen Romerok. «Energia berdea izango da, baina ez bidezkoa», ohartarazi zuen. Proiektu horiek energia ekoizteko forma berriei hitz egiten iristen dira hara, klima aldaketaren aurreko diskurtso berri

batekin, baina «guretzat gauza bera da».

Wayu herriko liderrak zehaztu zuenez, ondo ezaguna da enpresa horien jarduerak daukan inpaktu handia, ur horniduraren gabezia, luraren erabileraren aldaketan, hazi tradizionalen eta lurren galaran... eta Europako herrialde batzuek euren ikatza ekoizteari uztea erabaki dute, baina bitartean Guajirakoa erosten jarraitzen dute: «Herrialdeen diskurtsoen hipokrisiara itzultzen gara; ez dago herrialdeen garapen politikek benetan eragiten duten klima aldaketaren aitormen zintzorik».

JAKINDURIA ETA ZAINITZA

Romerok eta Trinidadek ordezkatu dituzten espoliazioaren aurkako esperientziak bat datoz herri indigenen jakinduriari eta emakumeen arteko sareei emandako garrantzian. Arbasoen legatuak lurraren zaintzaz eta erroez hitz egiten

«TEILATUTIK HASI GARA ETXEA ERAIKITZEN»

Testuinguru ezberdinak dira, baina trantsizio energetikoaren inkoherentzien artean bizitza kolokan jartzen duten proiektuen kontrako beste bi borroka izan ziren Latinoamerikako esperientzien ondoan. Paseko Haranen Defentsarako Plataformarena da bat, parke eoliko eta energia berriztagarrien eredu horren garbia eta jasangarria ote den auzitan jartzen duena; eta Caceresen baterien fabrikaziorako behar den litioa lortzeko meatzaritza proiektuaren kontrakoa, bestea. Mar Mayorren esanetan, parkeak baino gehiago «poligono eolikoak» dira, herritarrak informatu gabe heldu eta lurraldearentzat urraketa argiak dakartzate, tokiko biztanleen arteko kontsultarik gabe ezarri nahi izan dira, lurraldeko planifikazio energetiko falta argiaren erdian, eta inpaktu handia dute eremu babestuetan, biodibertsitatean zein akuiferoetan. Kantabriarrak nabarmendu zuen «klima larrialdiaren erabilera interesatua»

egiten ari direla, energiaren ekoizpena kontsumo lekuetatik urrun kokatzen duen egungo eskemaren barruan. Gogoratu zuen aerosorgailu batek energia fosila behar duela (fabrikatzeko eta zimendatzeko). «Ez dauka zentzurik zentral eolikoak jartzeko lursailak birkalifikatzea, lurzoru babestuek industrialak bilakatuz». Mayorren ustez, esperpentikoa da egungo araudiarekin eremu babestuetako lursail horietan txabola bat jartzea debekatuta egotea eta proiektu hauek baimentzea. Bere esanetan, lehendabizi «zer herrialde eredu nahi dugun» aztertu beharko litzateke, «zenbat energia behar dugun» eta orduan erabaki zer energia mota eta non instalatuko den: «Teilatutik hasi gara etxea eraikitzen».

Caceresko Salvemos la Montaña plataformako Alejandro Palomok esan zuenez, borroka luze baten ondoren lortu dute aire zabaleko meategiko proiektua bertan behera uztea, fronte informatiboa eta judiziala landuz.



Mar Mayo Kantabriako
Pase-ko Haranen
Defentsako
Plataformako kidea.

Monika DEL VALLE | FOKU

du, eta erasoen aurreko erreze-
ta bakarra komunitatean erai-
kitako babesa da.

Yessica Trinidadek aipatu
zuenez, Hondurasen proiektu
politikoa indartzen ari dira.
Herrialdetik hilabetero kara-
banak irteten diren arren,
«guk argi daukagu bertan ge-
ratu nahi dugula». Argi dute,
halaber, aurrera egiteko gako-
etako bi «jakinduria berresku-
ratu eta zaintza erdigunean
jartzea» direla: «Zuretzako ni,
eta zu niretzako, argi daukagu
bakarrik ezin dugula egin». Onartu zuen, halere, beldurra
ez dela desagertzen, eta horri
aurre egiteko moduetako bat
sareak jostea dela, «emakume-
ok elkar babestuz, geure bu-
rua sakrifikatu behar izatea-
ren eta emakume perfektuak
izatearen kultura horretatik
askatuz, baina batez ere barre
asko eginez».

«Emakumeok errautsetatik
tximeletak ateratzeko botere

hori daukagu», erantsi zuen
Jackeline Romerok borrokan
jarraitzearen moduz. Gogora
ekarri zuenez, wayu emaku-
meek argi ikusi zuten elkartze-
aren beharra: «Senideak ginen
emakumeak, indar publikoak
bortxatuak, sarraskituak, ga-
tazka armatuaren esparruan
desplazatuak, geure burua de-
fendatzeko eta geure artean
zaintzeko lehen erresistentzia
ariketa gisa elkartzea erabaki
genuen».

Ingurumenaren eta giza es-
kubideen aldeko aktibismoan
aritzen diren emakumeak po-
litikoki heztearen garrantzia
onartu zuen Romerok, «gizo-
nen sistemaren aurrean birko-
katzeko». Gaineratu zuen kan-
potik datorren indarkeriaz
gain antolakundeen barruan
gertatzen diren biolentziak ere
badaudela, eta kritika eraiki-
tzaile baten barruan errealita-
te horri erantzuten saiatzen
direla, emakumeen ekarpe-

nak, protagonismoak ez dire-
lako beti ongi hartuak.

Horren ondoan, gero eta in-
dar gehiago hartzen ari den es-
trategia juridikoak erne egote-
ra behartzen dituela azaldu
zuen. Indarren beste zati bat
komunikaziora bideratu behar
dute. Kolonbiako eta Hondu-
rasko hizlariak nabarmendu
zutenez, garrantzi handia du
eta eskura dauden tresna guz-
tiak erabiltzen dituzte. Infor-
matzea funtsezkoa dela deri-
tzote, gertatzen diren eraso eta

**Meatzeez gain, orain lurraldea parke eoliko-
z josteko aurreikuspenak daude. Beste diskurtso
bat baina «gauza bera»: ez justiziarik, ez
inklusionik, ezta etekinetan parte-hartzerik ere**

**Lurraldeen jabe egitera doazen enpresen
praktikak salatzea laguntzeko modu bat da.
Hemengo ordezkariak hara joan eta hango
errealitatea dokumentatzea ere lagungarria da**

urraketa guztien berri emate-
ko, bai komunitate barruan
eta bai kanpora begira. Horrek,
gainera, lurralde ezberdinen
arteko borrokak harremane-
tan jartzen laguntzen du. Kan-
potik zelan lagundu daitekeen
galdetuta, argi dute informa-
zioa zabaltzea eta horri oihar-
tzuna ematea ezinbestekoa de-
la isilarazi nahi diren
bidegabekeriak ikusarazteko.

Romerok gaineratu zuen en-
presek ez dutela gustuko iza-
ten eragiten dituzten egoerak
plaza publikoan zabaltzea. Ho-
rregatik, bistaratzen laguntze-
ak duen garrantzia nabarmen-
du zuen. Gobernuen aurrean
presioa egitea ere funtsezko-
tzat jo zuen. Hondurasen, Tri-
nidadek komentatu zuenez,
txalekoak, sakelako telefonoak
eta «izu-botoia» eskaintzen
omen ditu Gobernuak balizko
arrisku egoerei aurre egiteko.
«Tragedia horietaz barre egi-
ten dugu, emakume indigenen
berezitasunen eta komunitate
buruzagien babesa eraikitzen
dugunon aurreko inkoheren-
tzia horretaz». Argitu zuen ba-
rre besterik ezin dutela egin
norbaitek planteatzen duene-
an izu-botoia sakatzea arrisku
egoera batean, adibidez, arma
batekin apuntatzen dizun ho-
rren aurrean.

Komunitate indigenen lu-
rraldeetan enpresek eragiten
dituzten gehiegikeriak doku-
mentatzea lagungarria izan
daitekeela aipatu zuten, baita
egokitza jo ere zenbait alder-
ditako politikariak haien lu-
rraldeak bisitatu, zer gertatzen
den egiaztatu eta euren lege-
biltzarretara eramatea. Gogora
ekarri zuten Ivan Duqueri ez
zitzaiola batere gustatu Euro-
pako Parlamentuko sektore
batek salatu izana Kolonbiako
eskubideen urraketetan duen
erantzukizuna.